



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Ostirala  
2010-09-10**

VIII. URTEA 2.070. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Kontxako Bandera eskuratzeko faborito da Tolosa-Getaria trainerua

**TOLOSALDEA** Bihar izango da sailkapen proba eta lau azkarrenek hartuko dute parte etzi izango den estropadan

**ERRONKA** Olatz Aldalur ontziko patrioiak dioenez, «Kontxako Bandera arraunlari guztiek duten ametsa da» 4



TAKeko neskak Tolosan geratzen dira ondoren denak batera Getariara abiatzeko. HITZA



Datorren urtean itzuliko dira gaztetxoak. MARTA SAN SEBASTIAN

## Etxera itzuli dira Saharako haurrak

**GIZARTEA** Udara gurean eman eta gero atzo agurtu ziren 19 saharar gaztetxoak 2

## Ekitaldi ugari Arantzazuko Amaren eguna behar bezala ospatzeko

**JAIAK** Zizurkilgo Elbarrenan kantuan amaitu zuten eguna; Alkiza eta Bediaion gaur ere festa izango da nagusi 4



Haur ikuskizuna izan zen atzo arratsaldean. E. MAIZ

Datorren irailaren 11n ospatuko den "Bonberenea Sutan" jaialdirako bina sarreraren irabazleak

Martin Armendariz Mujika (Berastegi)

Zigor Leunda Eizmendi (Villabona)

Sarrerak lehiatilan bertan harpidedun txartelarekin





## Datorren urtera arte agurtu dituzte haur sahararrak

**GIZARTEA** • Uda eskualdean igaro duten 19 saharar gaztetxoak etxerako bidean dira berriro. Atzo arratsaldean hartu zuten aireporturako autobusa, eta gauerako Aljeriako basa-

mortuan dauden errefuxiatuen kanpalekuetara iristea aurreikusten zuten. Primerako uda igaro dute eta pozik nabari zitzaizen autobusera igotzean, bi hilabete eta gero berriro ere

euren familiak ikusiko dituztelako. Familia hartzaileentzat, berriz, une hunkigarria izan zen atzokoa, datorren urtera arte ez baitute elkar ikusiko. i.t.

### L Laburrak

#### Zezenketez hitzaldia eta afaria, La Jara elkarteak

**KULTURA** • La Jara elkarteak antolatutako Extremadurako Astearen barruan, 19:00etan Manuel Harina zezenketa adituaren hitzaldia izango da, eta 21:30ean erakunde-etako ordezkariak eta elkarteak bazkide eta lagunekin afaria, Flor de Jara abesbatzaren saioarekin.

#### Musika Eskolan izena emateko aukera zabalik

**KULTURA** • Eduardo Mocoeroa Udala Musika Eskolak jakinarazi duenez 2010-2011 ikaskurteko eskolak hasi dira. Dena den, oraindik ere hainbat kurtsotarako lekua dagoenez, matrikula epeak irekita jarraitzen du. Intereza dutenek Musika Eskolako bulegora joan beharko dute izena ematera. Astelehenerdik ostiralera 10:00etatik 13:00etara egin ahalgo da.

#### Eskubaloian jokatu nahi dutenentzat deialdia

**KIROLA** • Eskubaloian jokatu nahi duten gazteei deialdia luzatzen die Tolosa CFk. Gaur, 17:30ean Usabal kiroldegian izango dute entrenamendua. 1997an eta 1998an jaiotako infantilentzat luzatu dute deialdia.

#### Lau film aukeran, asteburu honetan Leidor aretoan

**KULTURA** • *A proposito de Ely* filma izango da gaur ikusgai zine forum saioan, Leidor aretoan. 19:15ean eta 21:45ean izango da, ohi bezala, jatorrizko bertsioan. Bestalde, bihar *Un sueño posible* izeneko filma izango da ikusgai, 19:30ean eta 22:30ean. Etzi, igandean, *Shrek* emango dute, 17:00etan, eta 19:30ean, aldiz, *Vincere*. Astelehenernean, ikuslearen egunean ere, *Vincere* filma emango dute, 20:30ean.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



## Irudikatu mundua BERRIarekin

Egin harpidedun eta jaso  
**ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.**



**Ezaugarriak:**

- Kamera digitala, 9 megapixelkoa
- TFT pantaila, 2.4 hazbetekoa
- Irudiaren berresken ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, 8 argazkiak hartuzeko
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.



Urriaren 15ean,  
**telebista hau zotz egingo dugu**  
BERRIaren harpidedunen artean,  
Elektraren eskutik.



**elektra**  
www.elektraguak.com

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidedun@berria.info

Aukerazazu, **BIZIEUSKARAZ**, **berria**



Tolosa-Getaria traineruak aukera handiak ditu igandean lehenengo Kontxako Bandera eskuratzeko. HITZA

# Ametsaren bila

**Arrauna** » Tolosa-Getaria traineruak Kontxako Bandera lortu nahi du igandean; lehenengo pausoa biharko sailkapen saioa gainditzea da.

IMANOL GARCIA

Arraunlari onenak elkartuko dira asteburu honetan Kontxako badietan. Tartean izango dira Tolosako Arraun Klubeko (TAK) neskek, Tolosa-Getaria traineruan parte hartzen. Denboraldi bikaina egin ondoren aukera dute urtea borobiltzeko Kontxako Bandera eskuratzu. Faborito dira, gainera, parte hartu duten estropada guztiak irabazi baitituzte, Gipuzkoako Txapelketa salbu. Euskotren Ligan jokatu dituzten hiru banderak lortu dituzte, Gipuzkoako Liga eskuratu dute bertan jokatu dituzten lau banderak eskuratu eta Euskadiko txapelketa dirala.

Olatz Aldalur ibartarrak patroilanak egiten ditu Tolosa-Getarian. «Orain arteko denboraldiarekin ezin gara kexatu, gustura gaude», dio, baina Kontxakoa irabazteko gogoz daude: «Orain arte egindakoarekin aukera dugu. Kontxako Bandera arraunlari guztiak duten ametsa da eta denboraldi hasieratik helburu hori dugu. Zaila da, baina helburua hori da».

Galizia izango da aurkari nagu-

siena. Horien kontra jokatuako hiru estropadak irabazi dituzte eta horrek faborito egiten ditu. «Galizia bi urte jarraian irabazi du Kontxa», dio Aldalurrek. «Aurten hiru aldiz irabazi diegu denboraldian, baina ez dakit zer gertatuko

**Olatz Aldalur: «Patroi batek estropada irabazi ez, baina galdu dezakeela esaten da»**

**Anjel Larrañaga: «Talde bezala memento polit batean iristen gara, fisikoki eta buruz»**

den. Mutiletan ea zeinek esango zuten San Juan lehenengo geldituko zela sailkapenean eta Castro kanpoan geldituko zela. Horrela-ko gauzak gertatu daitezke».

Bigarren Kontxako estropada izango da Aldalurrentzat. «Kontxak ez du zerikusirik beste estropadekin», dio patroiak. «Horrek duen izena, biltzen duen jendea, izugarria da. Iaz bi-hiru segundo-

tara gelditu ginen Banderatik eta badakit arantza hori guztiok barruan sartuta dugula eta aurten dena emango dugula lehenengo urtean lortu ez genuena aurten lortzeko».

Patroi lanetan aritzeak ardura areagotzen du. «Beti esaten da patroie batek estropada irabazi ez bainagaldudezakeela. Guk egiten dugun akats bakoitza oso nabarmen gelditzen da eta horregatik segundoko asko galdu daitezke. Arraunlari batek egiten badu ez da hain nabarmen gelditzen. Horrek ardura handiagoa ematen du».

Patroiek batzuek pentsatzen dutena baino lan gehiago egiten dute. «Jendeak esaten dizu, bakarrik trainerua zuzen eramatea edo buelta ematea dela gure lana», dio Aldalurrek. «Baina askoz gehiago da: arraunlariei jakin egin behar da eskatzen behar denean, itsaso txar-reen menperatzea oso zaila da eta beste hainbat gauza daude».

**Bihar, sailkapen estropada**

Anjel Larrañaga TAKeko entrenatzaileak azaltzen duenez, biharko sailkapen saioan «lau aurren-ekotan sartu beharko litzateke arazorik gabe Tolosa-Getaria. Hauekin batera faborito dira Galizia eta beste bi postuetarako Zumaia, Bizkaia, Orio eta San Juan egongo li-

tzateke aukerekin».

Igandekoa beste kontu bat izango da. «Kaleek ez badute ezberdintasun handirik markatzen, faborito bezala gaude, baina harrokeria handirik gabe. Egun bakarrean edozer gertatu daiteke. Talde bezala memento polit batean iristen gara, fisikoki eta buruz puntu on horrekin. Behintzat, zorte txarrik ez izatea eskatzen dugu».

TAKekoak Getariako klubarekin elkartu dira iaz bezala estropadetan parte hartzeko. Tolosako klubaren aldetik entrenatzailea Larrañaga da eta Getariatik Jabier Etxabe.

Anjel Larrañaga TAKeko entrenatzaileak azaltzen duenez, emakumezkoen Kontxako Banderari «oraindik pixka bat falta zaito heldutasun puntura iristeko. Mutientzat bezalaxe, neskentzat ere helburu nagusienetakoa da Kontxan egotea».

Bihar 18:00etan hasiko da Kontxako sailkapen estropada. 14 traineruk parte hartuko dute erlojuaren aurka. Bi multzotan banatuko dira. A multzoan traineru indartsuenak ariko dira, Euskotren eta Gipuzkoako Ligan aritu direnak. B multzoan, berriz, Mediterraneo aldetik eta Galiziatik gonbidatu bezala datozenak. Lau traineru bakarrik sailkatuko dira eta horien

## » TAK-EKO ARRAUNLARIAK

- **Olatz Aldalur (patroia)**. Ibarra.
- **Maitane Garmendia**. Ibarra.
- **Maia Doyague**. Arrasate.
- **Maialen Azaldeg**. Tolosa.
- **Ioana Alijostes**. Tolosa.
- **Naroa Urkola**. Anoeta.
- **Irati Larrañaga**. Tolosa.
- **Olatz Ortiz**. Tolosa.
- **Maita Amundarain**. Tolosa.

artean izango dute jokoan Kontxako Bandera igandean. 11:00etan hasiko dute estropada. Guztira 1,5 itsas milia (2.778 metro) egin beharko dituzte, zabioga bakarria eginenez.

Bandera eskuratu edo ez, denboraldia ospatzeko bazkaria egingo dute Tolosa-Getaria traineru-koek Izaskun jatetxean igandean bertan. Ondoren, Tolosako udal-tertxean 18:00etan harrera egingo diete eta Getariakoan 20:00etan.

**Tren zerbitzu bereziak**

Eskualdetik jende ugari joango da Donostiara estropadak ikusi eta ondorengo festa giroan parte hartzera. Renfetik azaldu dutenez, aldiriko tren zerbitzua indartuko dute.

Hala, ohiko trenez gain, 10:00etatik 22:00etara bitartean bost tren berezi jarriko dituzte eta sei trenek luzera bikoitza izango dute. Bestalde, Donostiatik itzule- rra errazteko, hainbat tren izango dituzte erreserban.

Horregatik, igande honetan lehenengo tandatik bigarren-aldaketa pixka bat baldin badago itsasoan aukera izango dugu aur- rera egiteko».

Astillerok bere tandan Pedreña, Hondarribi eta Donostiarekin ariko da. Orio eta Hondarribiaren artean lau segundo besterik ez dago eta lehia estua izango da. Igandera-ko itsaso pixka bat izango dela aurreikusita dago eta horrek ikusgar- ritasuna eman diezaiake estropada- rari.

## Astilleroko, hirugarren postuari begira

I. GARCIA

Asteburu mugitua izango du Anjel Larrañagak. Tolosa-Getaria traineruaz gain, Astillerokoari begira egongo da. Kantabriako traineruan entrenatzailea da Larrañaga.

Bihar iritsiko dira arraunlariak Gipuzkoara eta seguruenik Getarian egingo dute entrenamendua. «Donostia nahiko kolapsatua

egongo da goizean», dio tolosa- rarak.

Igandean lan bikoitza izango du seguruenik. Lehenengo neskekin eta gero Astilleroko mutilekin. Aurreko igandean seigarrena izan zen Kantabriako ontzia, laugarren egin baitzuen Oriotik bi segundora. «Asko dugu jokoan», dio. «Lehenengo txandan parte hartzean, eguraldia eta itsasoaren arabera,

eguraldia eta itsasoaren arabera, aukera izango dugu seigarren postu- etara atera eta aurreko postuetara jauzi handia egiteko. Iruditzen zaigu Kaiku eta Urdaibai urrutia xamar daudela, baina besteak traine- ruak nahiko eskura daude».

San Juanek hirugarren egin zuten aurreko igandean eta Astille- rori 10 segundoko abantaila aterate- ren dio. Pasai Donibane koei har- rapatzeko aukerak ikusten ditu

Larrañagak: «Aurreko igandean berain pare joan ginen eta eutsi ge- nien irlaraino. Gure patroiak mani- obra eskas xamar bat egin zuten, segituan bere kalera joaterakoan San Juan eman baitzion aukera ibilbide berdina egiteko. Are gehiago, guri baino mesede han- diago egin zien eta hamar segundo aterata zizkiguten lau minututan ba- karrik. Ordura arte erraz eutsi ge-

# Zizurkildarrek Arantzazuko Amaren eguna ospatu dute

**Jaiak** » Txan Magoaren magiarekin amaitu zuten eguna. Igandea bitarte, Zizurkil, Alkiza eta Bedaion festa izango da.

## ERREDAKZIOA

Atzo Arantzazuko Amaren eguna ospatu zuten Zizurkilgo Elbarrenan. Egunari hasiera, Meza Nagusiarekin eman zioten eta jarraian, herriko haurrek, euskal dantzak dantzatu zituzten. Jubilatuek bazkari ederra izan zuten Atxulondo jatetxean, baina aurretik, toka eta igela jokoak izan zituzten.

Haurrek berain txanda izan zuten eta txokoladaren aurretik, Super Plast ikuskizunaz gozatu ahal izan zuten. Meriendaren orduan buruhandiak ere plazan zehar ibili ziren.

Egunari bukaera emateko, herritarrek, Kantukale egin zuten. Hau da, euskal kantuz alaitu zuten herria, kaleetan barrena kantuan

aritu ostean. Tartean, pintxo ezberdinak jan eta barrikotea egiteko aukera izan zuten. Kantuan jarraitu ahal izateko.

Magiarekin eman zioten bukara Arantzazuko Amaren Egunari. Magia egitearen ardura, Euskal Herrian ezagunenetakoa den Txan Magoarena izan zen. «Artxila Mortxila» hitzak behin baino gehiagotan errepikatu zituzten eta ahoa bete hortz geratuko zen bat baino gehiago.

Eta oraindik hiru egun geratzen zaizkie jaiekin jarraitzeko. Gaur, gazteak izango dira nagusi. Bazkaria izango dute eta ondoren gazte jolasak egingo dituzte. Gauean berri, Zaunk, Che Sudaka eta Deskontrol taldeen kontzertuak izango dira.

Baina jaietan dauden bakarrak ez dira zizurkildarrak. Atzoko atsedeen egunaren ostean, Alkizan gaur eta bihar festa izango da eta Bedaion ere, gaur iluntzetik hasita igandera bitarte ez da musika, jan eta edanik faltako.



Super Plast ikuskizunaz gozatu zuten herriko haurrek. Ondoren, txokolatea izan zuten. E. MAIZ

## » GAURKO EGITARUAUK

### ZIZURKIL Gaur

- **11:30.** Haur jolasak egingo dituzte. Ondoren, buruhandiak aterako dira.
- **14:00.** Gazte bazkaria egingo dute plazan.
- **Ondoren.** Gazte jokoak egingo dituzte.
- **19:00.** Gorritiren abereak, Aurreran.
- **19:00.** Zozongo batukada ibiliko da.
- **23:00.** Kontzertuak: Zaunk, Che

Sudaka eta Deskontrol taldeen eskutik.

### BEDAIO Gaur

- **16:00.** Urne jolasak egingo dituzte: jokoak, buruhandiak eta txokolatada izango dira.
- **21:00.** Herri afari nagusia egingo dute.
- **23:00.** Ansorregi eta Larrañaga trikitilariekin eta Izer eta Alabier trikitilariekin erromeria izango da, ordu txikiak bitarte.

■ **Goizaldera.** Indarrak hartzeko, guztientzat, baratxuri zopa eta txokolatea izango da.

### ALKIZA Gaur

- **17:00.** Patxin eta Potxin pailazokak.
- **18:00.** Trikipoteoa mozorroturik.
- **21:00.** Barrikotea.
- **23:00.** Karaokea.
- **Ondoren.** Erromeria izango dute Ingo al deu? taldearekin.

# Kultur Tailerrak eta Jabekuntza Eskolako ikastaroen eskaintza

**Tolosa** » Astelehenetik hilaren 24a bitarte izena emateko aukera zabalik egongo da. Ikastaroak doakoak dira.

## ERREDAKZIOA

Iaz bezala, Tolosako Udalak, 2010-2011 ikasturterako Kultur Tailerretako eskaintza eta Jabekuntza Eskolako ikastaroena prestatuta dauka. Informazio guztia ondorengo loturan kontsulta daiteke: <http://www.tolosakoudala.net/ev/html/7/1867.shtml>.

Matrikula epea hilaren 13an, astelehenean irekiko da, eta irailaren 24a bitartean egin ahal izango da. Iazko ikasleentzako epea irailaren 17an amaituko da. Eta behin epe horretatik kanpo, ikasle berrien baldintza berak izango dituzte.

Matrikula egiteko bi aukera jarri dituzte: Tolosako Kultur Etxeko bulegoan bertan edo internet bidez ere bete daiteke matrikula orria. Internetez eginez gero, e-mail bidez, [kultura@tolosakoudala.net](mailto:kultura@tolosakoudala.net) helbidera bidali beharko da.



Iaz, erritmo afrikarrak ikasi zituzten. E. MAIZ

Ikastaro bakoitzari buruzko informazio zehatzagoa nahi izanez gero, Kultur Tailerren ingurukoa 943 67 03 83 telefono zenbakira deituz eskuratu daiteke. Aldiz, Jabekuntza Eskolako ikastaroena nahi izanez gero, 943 67 03 83 edo 617 73 60 14 (Josebe Iturrioz, Ber-

dintasun Teknikaria) telefonoetara deituz. Bestetik, aurten ordainketak egiteko modua aldatu egin dute. Aurrerantzean errezibo bidez egingo da. Nahi izanez gero, ordainketak helbideratu egin daitezke (begiratu matrikula orrian). Ikastaro guzti hauek doakoak dira.



Ekainean ospatu zuten Dantzari Txiki eta Alurr eguna. HITZA

# Alurr Dantza Taldean izena emateko aukera

**Ibarra** » Izena, hilaren 15etik urriaren 8a bitarte eman ahal izango da. Haurrek, gutxienez lau urte izan beharko dituzte.

## ERREDAKZIOA

Alurr Dantza Taldearen 2010-2011 ikasturtea prestatzen ari da. Ikasturtea urrian hasiko da eta izena emateko epea irailaren 15etik urriaren 8ra arte izango da.

Haurrek gutxienez lau urte izan beharko dituzte. Aurreko ikasturtean aritu direnek etxean jasoko

dute 2010-2011 ikasturtean izena eman ahal izateko agiria.

Alurr Dantza Taldearen bulegoa (Arantzazu 4, behe, Ibarra-Gipuzkoa) zabalik egongo da irailaren 15etik urriaren 8ra bitarte. Astelehenetik ostegunera, 17:00etatik 19:00etara, matrikula egiteko agiria jaso edo aurkezteko, eta edozein gestio egin edota zailantza argitzeko 635 75 70 48 telefono zenbakira deitu ahal da, astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara.

Matrikula egiteko agiria, Ibarra-kultur etxean jaso eta aurkeztea posible da.

## Arrospide irabazle Urdulizeko saioan

**Leaburu** » Bizkaian jokatutako jardunaldia eta gero, eskualdeko sailkapeneko bigarren postuan jarraitzen du.

### ERREDAKZIOA

Herenegun Urdulizen (Bizkaia) jokatu zen Urrezko Aizkolariaren Txapelaldia Ligako seigarren jardunaldia Bertan, Anjel Arrospide eskualdeko aizkolaria izan zen garaile, 20 minutu eta 9 segundoko denbora eginda.

Donato Larretxeak giharretako lesio bat izan zuen, eta leabururak baino ia lau minutu gehiago behar izan zituen bere lana amaitzeko.

Arratsaldean, Ordizian jokatu zen beste saio bat, hemen, Lope

Azpilikuetaren eta Olasagasti arituen nor baino nor. Hemen, Lizarrakoa hobeto aritu ziren eta berak eraman zituen jokoan zeuden bi puntuak.

Honenbestez, zazpigarren jardunaldia jokatu eta gero, Floren Nazabal da sailkapeneko buru sei punturekin. Atzetik du Arrospide, puntu bat gutxiagorekin. Hirugarren sailkatua Larretxea da 4rekin.

Txapelketako hurrengo hitzorduak asteburu honetan izango dira. Lehendabizikoa bihar, Udondon (Bizkaia). 19:00etan hasiko da saioa eta Anjel Arrospide, Juan Jose Lopez Azpilikueta eta Ama Birjinaren egunean, meza berezia ospatu zuten Lizartzan, eta bertan izan zen Regina Otaola alkatea. Hainbat herritarrek presoen aldeko kartelak eskuan



## Otaolari «ongietorria» herritarrek

**LIZARTZA** » Urteroko ohiturari jarraituz, Arantzazuko Ama Birjinaren egunean, meza berezia ospatu zuten Lizartzan, eta bertan izan zen Regina Otaola alkatea. Hainbat herritarrek presoen aldeko kartelak eskuan

zitzutela itxaron zuten Otaolaren etorrera. Gisa honetan eman nahi izan zioten «ongietorria» eta «harrera egin» alderdi popularreko ordezkariari, alkatetzeko bere azken urtean. HITZA

## Bigarren eskuko azokarako materiala biltzen hasi dira

**Berastegi** » Mugikortasun astearren baitan, Villabonan hilaren 18an egingo den azokan parte hartzeko udaletxera jo behar da.

### ERREDAKZIOA

Hilaren 16an hasiko da Tolosaldeko Mugikortasun Iraunkoraren Astea, eta 22ra arte luzatu. Ekitaldiz betetako astea, *Zentuz bizi, bizikletak ibili!* leloa duen bigarren eskuko azokak emango dio hasiera. Hau hilaren 18an egingo da, 10etatik 13:00etara bitartean, Villabonako Berdura plazan.

Berastegiko Udalak ekimen honetan parte hartzeko deia luzatzen diete herritarrei. Hori dela eta, azokan objektu edo produkturen bat saldu nahi dutenek hilaren 16a baino lehen Berastegiko Udaletxean utzi beharko dituzte. Horre-

tarako ordutegia, 09:00etatik 13:00etara bitartekoa da. Mugikortasun iraunkorarekin lotutako gauzak saldu ahal izango dira, hala nola, bizikletak, kaskoa, patineteak, mailotak, kilometro kontagailuak...

Produktua kode batekin identifikatu eta jabeari produktua bertan utzi izanaren ziurtagiri bat emango diote. Salneurria jabeak berak erabakiko du. Udaletxeko langile-erakundeak Villabonako azokara eraman eta bertan salgai ipiniko dute. Produktua saltzen bada jabeari telefonoz deitu eta dirua emango diote, eta saltzen ez bada, itzuli egingo diote objektua.

Azoka honekin bi helburu erdietsi nahi dituzte. Alde batetik, mugikortasun iraunkorra Tolosaldeko biztanleen artean sustatu, eta bestetik, berrerabilpena bultzatu, objektu ezberdinen bizirapena luzatuz.

## Laburrak

### Izaskungo Andre Maria jaia ospatuko dute etzi

**IBARRA** » Iraileko bigarren asteburuan Tolosaldean Izaskungo Andre Mariaren jaia ospatzea ohitura da. Hori dela eta, etzi, Izaskungo ermitan Meza berezia ospatuko dute 11:00etan hasita. Santa Maria kapera laguntzaile izango dute bertan.

### Txakolindegira irteera egingo dute bihar

**BERASTEGI** » Festetan, era batera edo bestera, parte hartutako guztiei zuzenduta txakolindegira irteera antolatuko dute Berastegin. Bihar egingo dute txangoa eta 10:00etan abiatuko dira plazatik autobusez. Txomin Etxaniz txakolindegira bisitatuko dute.

## Parte-hartzea bultzatzeko bilkura

**Albiztur** » Gipuzkoa Eraikitzen ekimenaren baitan bilduko dira; parte hartzeko izena aldeztu aurretik eman behar da.

### ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Herritarren Partaidetzarako Bulegoaren bitartez, Gipuzkoa Eraikitzen ekimena jarri du abian. Honekin, administrazioa eta herritarren arteko distantzia murriztea da asmoetako bat, eta aldi berean, azken hauen parte hartzea bultzatzea. Orain artean, probintziako hainbat herritan izan dira.

Egitasmoa dela eta, Rafa Uribarren Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuaren Diputatu Albizturaren izango da datoreen asteartean, hilaren 14an, albizturaren kezka, iritziak eta eskaerak entzuteko. Bilkura 18:30ean izango da udaletxeko areto nagusian.

Batzarrean parte hartu nahi duten herritarrek aldeztu aurretik eman beharko dute honen berri. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundikoek telefono bat jarri dutemartxan, 943 11 23 37, hain zuzen ere. Korreo elektronikoz ere eman daiteke izena, [gipuzkoapartehartzen@gipuzkoapartehartzen.net](mailto:gipuzkoapartehartzen@gipuzkoapartehartzen.net) helbidera mezua bidalita.

Beste produktuak ere erosten baduzu, hauek topaiko dituzu Euzko Herriko Plazan.

**27,00 €**  
Erret. 10000  
Euzko Herriko Plazan  
4 bitarteko

**25,00 €**  
Erret. 10000  
Hondatzen, Harritzen  
4 bitarteko

[www.euzkoherriko-plaza.com](http://www.euzkoherriko-plaza.com)

[plaza@euzkoherriko-plaza.com](mailto:plaza@euzkoherriko-plaza.com)

www.euzkoherriko-plaza.com

**Elebiden zure hizkuntza eskubideak babesten ditugu.**

Gizarte elebidun bat lortzeko egiten dugun lan Elebiden. Zure hizkuntza eskubideak umatu direla uste baduzu, jo guregana eta arazoa konpontzen lagunduko dizugu.

**elebide**

**117**

**www.euzkoherriko-plaza.com**



Aste honetan ibilaldi luzeagoa proposatuko dizuegu; Zumarraga eta Azpeiti artekoa, hain zuzen. Tartean Aizpurutxo auzoa igaroko dugu.

# Urola ibaia jarraituz

**JOXEMI SAIZAR**

**T**xango luzeagoa aukeratu dugu gaurko, Urola ibaia jarraituz Zumarraga eta Azpeiti artean. Gipuzkoa erdialdea zeharkatuko dugu eta auzo ezezagun bat, Aizpurutxo, bisitatzeko aukera izango dugu. Bi aldapa nagusi izango ditugu bidean zehar, Zumarraga eta Bidania igotzeko.

## Beasainera, lehendabizi

Tolosatik abiatu eta Goierrri barrenean sartuz, Beasainaino joango gara lehendabizi, beste ibilaldietan aipatutako bidegorri zatiak aprobetxatuz. Zelai xamarra da lehen zati hau. Ormaiztegi pasatu eta Ezkio-Itsason hasten da lehen aldapa Zumarragaraino igotzeko. Antigua egurrezko basiliza ikusgarria (ermiten katedrala deitzen diote) ikusi behar da derrigorrez hemen, herri arkitekturaren lekuko gisa.

Zumarragatik Azkoitira bitartean Urola ibaia jarraituko dugu, aldarrik izan gabe, tartean zubi ugari ikusiz errepidearen eta trenbide zenaren gainean. Gipuzkoaren erdialdea kostaldearekin (Zumai) uztartzen zuen komunikabidea aspaldi itxi zuten zoritxarrez.

## Aizpurutxo auzoa

Aizpurutxo auzoa Azkoitiko udalerrian sartzen da gehienbat, baina zati bat Bergarakoa da. Frontoia eta elizaren inguruan hainbat etxe

eta baserri biltzen dira bertan. Azkoitia zalduntxoaren herria da (Insausti jauregia dute jatorria) eta nabari da armaria duten etxe ugarietan. Atano pilotari sendiaren sehaska ere bada herri hau. Azkoiti-Tolosa korreoa aspaldidanik dago martxan, bi herri hauen arteko harremana sendotuz. Handik berehala, Loiolako santutegia pasata (Inazio santuaren sorlekua, hain zuzen), Azpeitia aurkituko dugu. Soreasuko San Sebastian eliza eta Enparan eta Antxieta etxeak ikusi behar dira bertara iritsiz gero.

## Bidania

Azpeititik gora hasten dira berriro aldapak Bidaniaraino igotzeko, ia bostehun metroko desnibela. Bi aukera daude Bidegoianera iristeko, Errezildik edo Urraki mendetik barrena. Lehena aukeratu dugu, luzeagoa izan arren, leuna-





Aizpurutxo auzoa. JOXEMI SAIZAR

goa delakoan. *Nekez jaito eta erreztu* dio herri honi buruzko esaerak. San Martin parrokieliza da eraikin deigarriena. Paulino Uzkudun boxeolaria eta Iñaki Eizmendi *Basarri* bertsolaria dira Errezilgo seme ezagunenak. Aldaparekin jarraituz garai bateko trinxera edo Iturburu mendatera iritsiko gara, ibilaldiko punturik altuena.

Hilabete honetako igandeetan Ernio mendian egiten diren erromerietarako abiapuntu erosoenetakoa da hau. Handik aurrera dena beheraka izango da, le-

hendabizi Bidegoian (Bidania zehatzago esanda), aldapa txikia igotzea Bidania mendatea, gero Albizturrera jaitsi eta azkenik Tolosara iritsiz aldapa handiari jarraituta.



**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri** eta  
**Gipuzkoako beste 4 Hitzetan**  
**DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
 EHORZKETAK  
 SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
 ZURE BETIKO EHOZTETXEA  
 www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
 ZERBITZU IRAUNKORRA  
 902 402 900

## Zurea da hitza

### Esne makina nahi dugu Tolosan!!

Orain dela hilabete batzuk, hementxe bertan irakurri nuen nola horrelako makina bat eskatzen zuen neska batek.

Ez dakit Tolosako Udala horretan ari ote den edo ez lanean, baina benetan, esne makina bat gustatuko litzaidake edukitzea Tolosan. Billabona, Beasain, Oiarzun, Errenteria... herrietan badago, zergatik ez Tolosan?

Eskerrikasko alde z aurretik..

**Maider.**

### Albiztur, Altzo, Baliarrain, Berrobi eta Orendaingo herritarrei lagunduz

Herritar agurgarriak:

Idatzi honen bitartez, Tolomendi Landa Garapen Elkartetik, *Dinamizatzaile TIC* proiektua aurkeztu nahi dizuegu. Horretarako TIC Dinamizatzailearen irudia sortu da, eta bere helburu nagusiak, hauek dira:

-Dauden baliabideak zehaztu eta egokien aplikatu.

-IKT-en (Informazio eta Komunikazioaren Teknologia) eguneroko erabilpenean biztanleria sentibilizatu.

-Udalerrietako web orrien erabilpena bultzatu.

-Banda zabaleko (ADSL, WI-MAX...) *Estaladura Itzal* posibleak zehaztu eta ezeztatu.

Udalerraren informazio egokiena lortu nahi badugu, zuen laguntza ezinbestekoa dugu.

Hori dela eta, interesa duten herritarrek bildu nahi ditugu, proiektua aurkezteko eta informazioa eskaintzeko.

Astero joango gara udaletxera eta gurekin harreman jarri nahi



Villabonan badute jada esne makina. E.MAZ

izanez gero hauek dira ditugun bide desberdinak:

-Udaletxean.

-Posta elektronikoko bidez:

*dinamizatic@tolomendi.net.*

-Telefonoz: 688-81 83 49.

Internet, telefono mugikor edota bestelako teknologia erabiltzeko arazorik baduzu esan guri eta hobetzen saiatuko gara.

**IKT dinamizatzailea. Joxi Balerdi.**

### Amarotz

Aspaldi auzora joan gabe egon

naiz eta berriz ere handik buelta bat eman ahal izan dudanean harritu egin dit bertako errepidea nola dagoen. Joan al zarete aspaldi Amarotz auzoan gora errepidetik? Ikaragarria! espaloiak konpondu dituzte, baina errepidea zuloz beteta dago! Auzoa behetik gora auzoan zeharkatzean baduzue konturatuko zarete. Behar bada hurrengo fase batean konpontzeko asmoa dute, baina hala ez bada ea norbaitek hau irakurri eta kontuan hartzen duen.

**Amarotzarra.**



## Elikaduraren inguruko zalantzak

**TOLOSA** • Atzo Eroskira erositak egitera joan zenak nutrizionista bat topatuko zuen bertan. Bihar arte egongo da, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, gerturatzen diren guztien elikaduraren inguruan dituzten zalantzak argitzeko prest. HITZA

## Laburrak

### Hirigintza, Kultura eta Ingurumen batzordea

**AMEZKETA** • Oporrak bukatu eta Ametzetako Udalak berriro eremartzan jarri du herriko batzordea. Hirigintza/Obra, Kultura eta Ingurumena batzordearen bilera astelehenean izango da 20:30ean udaletxeko Pleno Aretoan.

### Astelehenean, Odola emateko aukera

**AMEZKETA** • Odola emateko aukera izango da Ametzetan. Hilaren 13an 18:30etik 20:30era izango da horretarako parada. Baloioitzeko gelan izango da eta dei egiten diete, odol-emale direnei eta baita oraindik inoiz eman ez dutenei.

## tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com

Astelehen astelehena: TOLOSA arte jostako lagarrik sail arretarako da. RAJARRAK JARTZERD: www.tolosaldekohitza.iragarkilaburrak.com / 943-65-56-99/telefonu arretakoa

### LAN ERABILTZEK

#### LAN ERABILTZEK

#### PERTSONAK ZAHARRU

**Baztergieta.** Astelehen goizez lan egin nahiko nuke baztergieta inguruko herrien batoan, zain-tzaile moduan, eteko lanak egiten... Lehen hezkuntzako ikasle ikusentak eta begarri ikusentak ditut. Edocem zabalera argitaratzen ditut. 636-07 70 06 telefono zenbakia.

### LAN ERABILTZEK

#### LAN ERABILTZEK

#### DINTALARIETZA

**Amezketan.** Amezketako jabetze batek, zerbitzario behar du asteburuetan lan egiteko. Interesatuak, deitu 605-72 77 30 telefono zenbakia.

#### SANERAKOAK

**Tolosa.** Tolu eta etxe-barruen erreformak eta orokorrean, inguruetan eta inguruetan lanak egiten ditut. Tolosaldea, Leizaldea eta Donostia. Interesatuak, deitu 656-41 02 80 edo 943-65 01 84 telefono zenbakia.

### OPORRAK/ERDIAK

#### GANERAKOAK

**Etxeri Lodiana.** Nafarroako Etxeriaren erforma eragutun nahi baduzu, etxeri Lodiana etxe-egon batzuk pasatu gure landaretan. Harremanetarako telefono zenbakia: 677-83 40 47 edo 948-69 36 18.

#### Familietara

#### ETXERAKO TRESNAKINTZARIK

#### SALDU

**Hiritzako altzarik.** Egoera onetan dauden hiritzako hainbat altzar saltem ditut. Interesatuak, deitu 628-69 88 07 edo 666-61 57 66 telefono zenbakia.

**tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com**

Interneten iragarki guztiak hemen

943 65 56 99

**AUKERA**

Etxe bat salgai Autolen (Errioz), Arnedu 30km-ra. Aste zaharrea, 5 logela, 3 koma, inguruetan bai, petio eta terraza. Eguzkitua. 175.000 euro

696-86 77 56

Etxebizitzak bat errentan Odeizten ditut. (Larrea barran), 3 logela, koma, terraza. 400 euro hilan

**AUKERA**

**LAZKAO**

18 logela eta 200m<sup>2</sup> errenta-errentakuntza dira

**AZKEN PISUAK SALGAI**

18 logela eta 200m<sup>2</sup> errenta-errentakuntza dira

Jose Luis, 4 beheko - 20213 LAZKAO - 943 68 37 38

**www.lamyazkao.com**

**Salbide**

SALBIDE Higiezin zerbitzuak

Bukatu kalera 6 • 20800 Zarautz

Telef: 943-01 07 00 • Fax: 645-71 85 96

**www.lamosalvide.com**

**Aizurruazabal.** 3 logela etxebizitza, 10 metro lekuak trastelekuarekin. Oso preio onen. 33.000.000 pezetan.

**Aizurruazabal.** ALKERA ONA. Etxebizitza erakilerria 2 logela. 35.000.000 pezetan.

**Zarauza.** Aukeri Parke. Logela bat eta handia. Altea eta bita oderrak. Trasteleku eta ingurua. 47.000.000 pezetan.

**Zarauza.** Viala Abegren. 2 logela dituzte. Terraza handia. Eguzkitua. 49.500.000 pezetan.

**Zestoa.** Arrea beheko. 2 logela etxebizitza. 28.000.000 pezetan.

**Getaria.** Herrietan kalera. 3 logela eta 2 banagailo etxebizitza. Trastelekuarekin. Egoera onen. Prezio onen. 42.500.000 pezetan.

**Aia.** Errentakuntza berria. 3 logela, 2 banagailo eta 127m<sup>2</sup>ko terraza. 46.588.000 pezetan.

**Aia.** Sario auzo. ALKERA OKINA. 12 m<sup>2</sup>ko 3 logela etxebizitza. 15m<sup>2</sup>ko trastelekuarekin. Erreforma behar du. 25.895.000 pezetan.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Alegia.** Txintxarri elkarteak Txintxarri Eguna ospatuko du bihar eta bazkideek bazkaria izango dute elkartean bertan. Izen-ematea, elkartean egin ahal da.

### Erakusketa

■ **Tolosa.** Eburne Pasabani buruzko erakusketa Aranburu jauregian: materiala, argazki, irudi eta hurrek egindako marrazkiak ikus daitezke. Igandera arte ikusgai.

### Jaiak

■ **Alkiza.** 17:00etan Patxin eta Potxin pailazoak; 18:00etan trikipotea mozorroturik; 21:00etan barrikotea, 23:00etan karaokea; ondoren erromeria Ingo al deu? taldearekin.

■ **Bedaio.** 20:00etan zahagi ardoa (edaria elkarteak jarriko du); 23:00etan erromeria Elustondo anai-arreba trikilariekin. Goizaldera, baratxuri zopa eta txokolatea.

■ **Zizurkil.** Elbarrena auzoko jaiak: 11:30ean haur jolasak; ondoren buruhandiak; 14:00etan gazte bazkaria plazan eta ondoren gazte

jokoak; 19:00etan Gorritiren abereak Aurreran; 19:00etan Zozongo batukada; 23:00etan Zaunk, Che Sudaka eta Deskontrol taldeen kontzertuak.

### Kultur Asteak

■ **Tolosa.** Extremadurako Astea: 19:00etan Manuel Harina zzenketa adituaren hitzaldia; 21:30ean erakundeetako ordezkariekin eta elkarteko bazkide eta lagunekin afaria (izen-ematea 20:00ak arte, 18 euro). Afarian, Flor de Jara abesbatzaren saioa.

### Zinema

■ **Tolosa.** *A proposito de Ely* filma jatorrizko bertsoian zine-forumean, Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

■ **Lekunberri.** Mendia M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Atenasko dizdira



XII. Hitza Argazki Lehiaketan parte hartu du Jon Ander Gomez de Segurak Atenasen ateratako argazki honekin: «Akropolis bai egunez baita gauz ere da polita». JON ANDER GOMEZ DE SEGURA

## A Agurrak



### Zorionak!

Gaur 6 urte beteko dituzte Eñautek eta Oierrek. Segi beti bezain alai eta bihurri. Mxh 1.



### Zorionak!

**Amezketako Maria Mujika.** Abuztuaren 10ean 94 urte egin zituen. Orain arte bezala jarraitu, guapa!



### Zorionak!

**Intza Jauregi Mujika.**

Urtebete abuztuaren 28an. Iazko abuztuan a ze oparia! Intza txikiak zigun / ekarri argia / zu hazten ikustea / da gure saria; / harrotasunez zaigu / poztzen arpegia. Familiaren partetik.

argazki lehiaketa

**XII. HITZA Argazki Lehiaketa Animatu eta parte hartu!**

**NORA BIDALI?**

argazkiak@tolosaldeko hitza.info helbide elektronikora  
Irailak 30 arte

**HITZA** udarako argazki lehiaketa

**1. Saria**

Eako Argazki Lehiaketaren irabazlea

**2. Saria**

Getariako O. landetxean bi puzga bat pasatu

**3. Saria**

Gorrotzeko eskemita

**Parte-hartzaile orok HITZAko materiala**